## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

## Zk-3156

EBAZPENA, 2002ko maiatzaren 8koa, Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, organo beraren 2000ko uztailaren 31ko Ebazpena egokitzeko dena, 2002an aplikatu ahal izateko. Ebazpen horren bidez, laneko arriskuen prebentzioaren alorrean heziketa, zabalkundea eta ikerketa sustatzeko diru-laguntzak arautu ziren.

Irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuak Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartu zuen, eta IX. tituluan ezarritakoari jarraituz, abenduaren 26ko 275/2000 Dekretua eman zen. Azken dekretu horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako laguntza eta diru-laguntzak arautzen dituzten zenbait xedapenen indarraldia luzatzea. Eta horretarako, Jaurlaritzak, sailek eta erakunde autonomoek beharrezko diren epeak, baldintzak eta betebeharrak molda ditzakete, xedapenok2002ko ekitaldian aplikatu ahal izateko.

2000ko ekitaldian, Osalaneko zuzendari nagusiaren 2000ko uztailaren 31ko Ebazpena eman zen, laneko arriskuen prebentzioaren alorrean heziketa, zabalkundea eta ikerketa sustatzeko diru-laguntzak arautzeko (2000ko abuztuaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 167 zk.; hutsen zuzenketa: 2000ko urriaren 11ko EHAA, 196 zk.). Beraz, ebazpen hori 2002 ekitaldian aplikatu ahal izateko, epeak eta baldintzak egokitu egin behar dira.

Hori dela eta, hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Eskabideak aurkezteko epea.

Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2000ko uztailaren 31ko Ebazpenean ezarritako laguntzak eskatzeko epea hil bikoa izango da ebazpen hau indarrean denetik aurrera. Ebazpen horren bidez, laneko arriskuen prebentzioaren alorrean heziketa, zabalkundea eta ikerketa sustatzeko diru-laguntzak arautu ziren.

*2. artikulua.–* Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Entitateek Osalanen egoitzara bidali beharko dituzte ebazpen honetan aipatzen diren laguntzak eskatze-

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

## N°-3156

RESOLUCIÓN de 8 de mayo de 2002, del Director General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, por la que se adapta, para su aplicación durante el ejercicio 2002, la Resolución de 31 de julio de 2000, del mismo órgano, por la que se regula la concesión de subvenciones para la promoción de la formación, divulgación e investigación en materia de prevención de riesgos laborales.

Al amparo de lo establecido en el Título IX del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, se dictó el Decreto 367/2001, de 26 de diciembre, sobre ampliación de la vigencia de determinadas disposiciones reguladoras de ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pudiendo, a tal fin, el Gobierno y los distintos Departamentos y Organismos Autónomos adaptar los plazos, condiciones y requisitos necesarios para su aplicación durante el ejercicio 2002.

En el ejercicio 2000 se dictó la Resolución de 31 de julio de 2000, del Director General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, por la que se reguló la concesión de subvenciones para la promoción de la formación, divulgación e investigación en materia de prevención de riesgos laborales, publicada en el BOPV n.º 167, de 31 de agosto de 2000, corrección de errores en el BOPV n.º 196, de 11 de octubre de 2000, por lo que procede la adaptación de los plazos y condiciones necesarios para la aplicación de la referida Resolución durante el ejercicio 2002.

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Plazo de presentación de solicitudes.

En el ejercicio 2002 el plazo de presentación de solicitudes para acceder a la convocatoria de ayudas establecida por Resolución de 31 de julio de 2000, del Director General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones para la promoción de la formación, divulgación e investigación en materia de prevención de riesgos laborales, será de dos meses desde que la presente Resolución surta efectos.

*Artículo 2.–* Solicitudes y documentación a presentar.

Las entidades solicitantes de las ayudas a las que se refiere la presente Resolución deberán dirigirlas, junto

ko eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak (Camino de la Dinamita, z/g, 48903, Gurutzeta-Barakaldo, Bizkaia). Zuzenean aurkez ditzakete, edo bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako edozein moduz.

*3. artikulua.–* Diru-baliabideak.

Ebazpen honetan aipatzen diren laguntzen helburua lortzeko, 84.142 euro bideratuko dira 2002 urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako jarritako aurrekontu-atalaren kontura.

*4. artikulua.–* Datak eta epeak egokitzea.

Deialdi honen ondorioetarako, Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2000ko uztailaren 31ko Ebazpenean 2000 eta 2001 urteei egiten zaizkien aipamenak hurrenez hurren 2002 eta 2003 urteei egiten zaizkiela ulertu behar da.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Denek jakin dezaten eta interesatuek eskuragarri izan dezaten, agindu honetako eranskinean dago 2002ko ekitaldirako egindako aurreikuspenak eta Osalaneko zuzendari nagusiaren 2000ko uztailaren 31ko Ebazpeneko araubide orokorra bateratzetik ateratako testua. Ebazpen horren bidez, bestalde, laneko arriskuen prebentzioaren alorrean heziketa, zabalkundea eta ikerketa sustatzeko diru-laguntzak arautu ziren.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ebazpen hau azkena da administrazio-bidean. Horren aurka, interesatuek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osalaneko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

*Bigarrena.–* Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Barakaldo, 2002ko maiatzaren 8a.

Osalaneko zuzendari nagusia,
IÑAKI GALDÓS IBÁÑEZ DE OPACUA.

con la documentación exigida, a Osalan, Camino de la Dinamita s/n.º, 48903 Cruces-Barakaldo (Bizkaia), bien directamente, bien por cualquier procedimiento previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 3.–* Recursos económicos.

Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Resolución, durante el presente ejercicio 2002, la cantidad de 84.142 euros, con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV.

*Artículo 4.–* Adaptación de fechas y plazos.

A efectos de la presente convocatoria las referencias que en la Resolución de 31 de julio de 2000, del Director General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, se efectúan a los años 2000 y 2001, han de entenderse referidas respectivamente a los años 2002 y 2003.

DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

Para general conocimiento y facilitar el uso por los posibles interesados, se incorpora como Anexo a la presente Resolución el texto resultante de refundir las previsiones efectuadas para el ejercicio 2002 y el régimen general establecido por la Resolución de 31 de julio de 2000, del Director General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, por la que se regula la concesión de subvenciones para la promoción de la formación, divulgación e investigación en materia de prevención de riesgos laborales.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Director General de Osalan, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco o, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

*Segunda.–* La presente Resolución surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Barakaldo, a 8 de mayo de 2002.

El Director General de Osalan,
IÑAKI GALDÓS IBÁÑEZ DE OPACUA.

ERANSKINA

Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2000ko uztailaren 31ko Ebazpenaren testu egokitua. Ebazpen horren bidez, laneko arriskuen prebentzioaren alorrean heziketa, zabalkundea eta ikerketa sustatzeko diru-laguntzak arautzen ziren.

*1. artikulua.–* Xedea.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden irabazi-xederik gabeko erakundeei emango dizkien diru-laguntzak arautzea da deialdi honen helburua. Laneko arriskuen prebentzioaren alorrean heziketa, zabalkundea eta ikerketa sustatzeko 2002 ekitaldian egindako jardueretarako emango zaizkie diru-laguntzak, eta eman ere, ondorengo artikuluetan zehaztuko den moduan eta dagokion aurrekontuko IV. kapituluan izendatutako kredituen arabera. Guztira, 84.142 euro bideratuko dira, OSALANek 2002 urterako duen aurrekontuko 31130 egitarauko 454.99 diru-atala erabilita.

*2. artikulua.–* Diru-laguntzen izaera.

1.– Ebazpen honetan jasotako diru-laguntzak ezitzultzekoak izango dira eta lehiaketa-bidez esleituko dira.

2.– Aurkeztutako eskabideak ebaluatu ondoren, baloraziorik handiena lortu dutenak onetsiko dira, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan laguntza horietarako aurreikusita dagoen kreditua agortu arte, edo, indarrean dauden legeen arabera aurrekontu aldaketarik onartuz gero, kreditu hori eguneratzetik ateratzen dena agortu arte.

*3. artikulua.–* Erakunde onuradunak.

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden irabazi-xederik gabeko erakundeek eska ditzakete ebazpen honetan jasotako diru-laguntzak.

*4. artikulua.–* Zergei, Gizarte Segurantzari, laneko segurtasun eta osasunari eta diru-laguntza publikoei dagozkien eginbeharrak beteta izatea.

1.– Ebazpen honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko, erakundeek egiaztatu egin beharko dute ordainduta dituztela batetik, zergak, Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991eko urriaren 7ko Aginduaren arabera, eta bestetik, Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak.

2.– Erakundeek berez eta besterik gabe geratuko dira deialdi honetatik kanpo, baldin eta, ebazpen honen 8.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, behar bezala

ANEXO

Texto adaptado de la Resolución de 31 de julio de 2000, del Director General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, por la que se regula la concesión de subvenciones para la promoción de la formación, divulgación e investigación en materia de prevención de riesgos laborales.

*Artículo 1.–* Objeto.

El objeto de la presente convocatoria es la regulación de las subvenciones a conceder por Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, a entidades sin ánimo de lucro radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, por sus actuaciones encaminadas a la promoción de la formación, divulgación e investigación en materia de prevención de riesgos laborales durante el ejercicio de 2002, en los términos señalados en los artículos siguientes y dentro de los límites que determinan los créditos consignados en el Capítulo IV de su Presupuesto. A este fin se destinará un total de 84.142 euros, cuya imputación presupuestaria vendrá dada a través de la partida 454.99 del programa 31130 del presupuesto de OSALAN para el año 2002.

*Artículo 2.–* Naturaleza de las ayudas.

1.– Las ayudas contempladas en la presente Resolución se materializarán a través de subvenciones no reintegrables y se concederán mediante el procedimiento de concurso.

2.– Como resultado de la evaluación de las solicitudes presentadas se procederá a estimar aquéllas a las que se haya otorgado mayor valoración, hasta que se produzca el agotamiento del crédito presupuestario consignado al efecto o el que resulte de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la normativa vigente.

*Artículo 3.–* Entidades beneficiarias.

Podrán solicitar las subvenciones reguladas en la presente Resolución las entidades sin ánimo de lucro que radiquen en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 4.–* Cumplimiento de obligaciones tributarias, de Seguridad Social, en materia de seguridad y salud laboral y de subvenciones públicas.

1.– La concesión y pago de las ayudas previstas en la presente Resolución queda condicionada a la acreditación por parte de las entidades solicitantes del cumplimiento de sus obligaciones tributarias, de conformidad con lo dispuesto en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, y del cumplimiento de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

2.– Quedarán automáticamente excluidas de la presente convocatoria las entidades que no acrediten suficientemente los aspectos relativos a las condenas o san-

egiaztatzen ez badituzte alderdi hauek: azken bost urteetan laneko segurtasun eta osasunaren aurka egindako delitu edo arau-hauste administratibo oso larriengatik jasotako kondena eta zigorrei buruzkoak eta aplikatzekoak diren alor horretako arauak betetzeari buruzkoak.

3.– Halaber, erakundeei ebazpen honetan aurreikusitako diru-laguntzen esleipena edo zenbatekoa emateko, baldintza hau bete beharko da: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ematen dituen izaera bereko laguntza edo diru-laguntza publikoei dagokienez, baldin eta itzultze edo zehapen prozeduraren bat artean izapideetan badago, amaitu egin beharko da.

*5. artikulua.–* Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak edo proiektuak 2002ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean burutu beharko dira, eta honelako jardueraren bat burutzeko izango dira:

a) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko heziketa bultzatzea.

b) Laneko segurtasun eta osasun-alorreko heziketa-jardunak edota jardun zientifiko-teknikoak antolatu eta kudeatzea.

c) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko ikerketa-programak garatzea.

2.– Finantzatutako jardueraren ondoriozko defizit osoa kitatu ahal izango du diru-laguntzaren zenbatekoak.

3.– Ebazpen honen 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, kredituen gehienezko zenbateko osoa honela banatuko da:

a) Artikulu honen 1 a) idatz-zatian aurreikusitako jardueretarako, hogeita hamar mila eta berrogeita hamaika euro (30.051 euro).

b) Artikulu honen 1 b) idatz-zatian aurreikusitako jardueretarako, hogeita hamar mila eta berrogeita hamaika euro (30.051 euro).

c) Artikulu honen 1 c) idatz-zatian aurreikusitako jardueretarako, hogeita lau mila eta berrogei euro (24.040 euro).

Kreditu-multzo horietakoren bat guztiz betetzen ez bada, saldoak gainerakoei gehitu ahalko zaizkie, Balorazio Batzordeak proposatutakoaren arabera.

*6. artikulua.–* Prozeduraren iraupena.

Ebazpen honetan zehaztutako prozedurak 6 hilabete iraungo du gehienez, ebazpena indarrean sartzen denetik aurrera.

*7. artikulua.–* Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hil bikoa izango da, ebazpena indarrean sartzen denetik aurrera.

ciones de que hubieran sido objeto por delitos o infracciones administrativas muy graves contra la seguridad y salud laboral en los cinco últimos años, así como al cumplimiento de la normativa en la materia que les sea de aplicación, en los términos reseñados en el artículo 8.2 b) de la presente Resolución.

3.– Asimismo, la concesión y pago a las entidades beneficiarias de las ayudas previstas en la presente Resolución quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones públicas de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 5.–* Actividades subvencionables.

1.– Las actividades a subvencionar se desarrollarán entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2002 y deberán ir dirigidas a la realización de alguna de las siguientes acciones:

a) Favorecer la formación en Prevención de Riesgos Laborales.

b) Organizar y gestionar eventos formativos y/o científico-técnicos en materia de Seguridad y Salud Laborales.

c) Desarrollar programas de investigación en el campo de la Prevención de Riesgos Laborales.

2.– El importe de las ayudas podrá cubrir la totalidad del déficit generado en la actuación financiada.

3.– El importe global máximo de los créditos, de conformidad con lo estipulado en los artículos 1 y 2 de la presente Resolución, se distribuirá de la siguiente forma:

a) Por las acciones previstas en el párrafo 1 a) del presente artículo, treinta mil cincuenta y un euros (30.051 euros).

b) Por las acciones previstas en el párrafo 1 b) del presente artículo, treinta mil cincuenta y un euros (30.051 euros).

c) Por las acciones previstas en el párrafo 1 c) del presente artículo, veinticuatro mil cuarenta euros (24.040 euros).

De no cubrirse la totalidad de alguno de dichos bloques crediticios podrán acumularse los saldos al resto, en función de la propuesta que efectúe la Comisión de Valoración.

*Artículo 6.–* Duración del procedimiento.

El plazo máximo de duración del procedimiento previsto en esta Resolución es de 6 meses a contar desde que la misma surta efectos.

*Artículo 7.–* Presentación de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de las solicitudes será de dos meses a contar desde que la presente Resolución surta efectos.

2.– Eskabideak Osalaneko egoitzan aurkeztu behar dira (Camino de la Dinamita, z/g, 48903, Gurutzeta-Barakaldo, Bizkaia), bai zuzenean bai Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren edo Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 34.8 artikuluan aurreikusitako bideetako edozein erabiliz.

*8. artikulua.*– Agiriak.

Eskabideak Osalaneko zuzendari nagusiari bidaliko zaizkio, agiri hauekin batera:

1.– Agiri administratiboak.

a) Erakunde eskatzailearen datuak.

b) Elkarteen Erregistroan edo dagokion erregistro publikoan egindako inskripzioaren ziurtagiriaren kopia.

c) Identifikazio Fiskaleko Kodearen esleipen-agiriaren kopia.

d) Erakunde antolatzailearen estatutu edo erregelamendu ofizialen kopia.

e) Erakundearen legezko ordezkariaren zinpeko adierazpena, behar bezala kreditatua. Helburu bererako beste diru-laguntzaren bat eskatu den eta, hala izanez gero, zein erakunderi eskatu zaion eta nola dagoen (emanda, eskatuta edo izapidetan) zehaztu beharko da.

f) Erakundeak zerga-betebeharrak egin dituela edo horietatik libre dagoela egiaztatzen agiria, Foru Ogasunak egina.

g) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak konplituta dituela edo horietatik jare dagoela ziurtatzen duen agiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egina.

2.– Agiri teknikoak

a) 2002ko ekitaldian burutu diren edo burutzekoak diren jardueren programa, diru-laguntzetarako deialdi honi dagokiona. Ekintzak bereizita jarri beharko dira, eta aurrekontuak, banakatuta. Arreta berezia jarriko da ebazpen honen 11.1 artikuluan ezarritako alderdietan, horiek baitira baloratu beharrekoak.

Aurrekontu banakatu horietan, bestalde, jaso beharko dira gastuak eta, baldin badaude, matrikulengatiko diru-sarrerak —matrikulen prezioa eta aurreikusitako inskripzioen kopurua zehaztuta—,agiriak edo material informatikoa saltzeagatiko diru-sarrerak eta jarduerarekin zerikusirik duten gainerakoak.

b) Erakundearen legezko ordezkariaren zinpeko adierazpena, behar bezala kreditatua. Bertan adieraziko dira, alde batetik, erakundeek ez dutela epai irmoren bidez zigorrik jaso lan segurtasun eta osasunaren aurkako delituengatik, edo ez dutela zehapenik jaso irmo izaeraz alor horretan lege-hauste administratibo oso larriarengatik, deialdi hau argitaratzen denetik atzerako bost urteetan; eta, beste aldetik, Lan Segurtasun eta

2.– Las solicitudes se presentarán en Osalan, Camino de la Dinamita s/n.º, 48903 Cruces-Barakaldo (Bizkaia), bien directamente o a través de cualquiera de los medios previstos en el artículo 34.8 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 8.*– Documentación.

Las solicitudes se dirigirán al Director General de Osalan, acompañadas de la siguiente documentación:

1.– Documentación Administrativa

a) Datos relativos a la entidad solicitante.

b) Copia del certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones o registro público correspondiente.

c) Copia del documento de adjudicación del Código de Identificación Fiscal.

d) Copia de los Estatutos o Reglamento oficiales de la entidad organizadora.

e) Declaración jurada del/de la representante legal de la entidad, debidamente acreditado/a, señalando expresamente si se ha solicitado alguna otra subvención para la misma finalidad y, en su caso, organismo a que se ha dirigido y situación de la misma (concedida, solicitada o en trámite).

f) Certificado de la Hacienda Foral acreditando que la entidad está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas.

g) Certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social acreditando que la entidad está al corriente de sus obligaciones de Seguridad Social o exenta de ellas.

2.– Documentación Técnica

a) Descripción pormenorizada de las actuaciones realizadas o que se pretendan realizar en el ejercicio 2002 y que sean objeto de la presente convocatoria de subvenciones, separando acciones y desglosando el presupuesto de cada una de ellas, incidiendo en los aspectos a valorar establecidos en el artículo 11.1 de la presente Resolución.

El desglose presupuestario deberá contemplar tanto los gastos como, en su caso, los ingresos en concepto de matrícula, detallando el precio de la misma y el número de inscripciones previstas, así como los derivados de la venta de documentación o material informático, y cualesquiera otros asociados a la actuación.

b) Declaración jurada del/de la representante legal de la entidad, debidamente acreditado/a, de que ésta no ha sido condenada mediante sentencia firme por cometer delitos contra la seguridad y salud laboral, o sancionada con carácter firme por cometer infracción administrativa muy grave en dicha materia en el período de cinco años anteriores a la fecha de la presente convocatoria, así como del cumplimiento de las siguientes

Osasunari buruzko arauek ezarritako eskakizun hauek betetzen dituztela:

– Lan arriskuen ebaluazioa egin izana, prebentzioa antolatzeko modalitate bat ezarri izana, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera; eta, hala badagokio, prebentziorako jardute-plan bat gauzatu izana.

– Prebentzio Sistemaren auditoria egin izana, hori beharrezkoa duten antolamendu-modalitateetan, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartu zuen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 29. artikuluan ezarritakoaren arabera.

*9. artikulua.*– Aurkeztutako eskabideetan egindako hutsen zuzenketa.

Aurkeztutako eskabideak behar bezala beteta ez badaude edo 8.1. artikuluan eskatutako agiriren bat falta badute, falta den dokumentazioa aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio Osalanek dagokion eskatzaileari, eta 10 egun balioduneko epea emango, horretarako jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita. Horretaz gain, eskatzaileari ohartaraziko zaio horrela egin ezean, eskabidea ezetsi egingo dela eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan agindutakoa beteko dela.

*10. artikulua.*– Diru-laguntzen kudeaketa eta Balorazio Batzordea.

1.– Osalan arduratuko da ebazpen honetan aurreikusitako diru-laguntzak kudeatzeaz.

2.– Aurkeztutako eskariak aztertu eta baloratzeko, Balorazio Batzorde bat osatuko da Osalanen. Hauek izango dira kideak:

Lehendakaria: Sustapen zuzendariordea.

– Bokalak:

– Zuzendariorde operatiboa.
– Heziketa, Dokumentazio eta Argitalpen arduraduna.
– Laneko Osasunaren arduraduna.
– Osalani atxikitako teknikari bat.
– Idazkaria: Osalani atxikitako teknikari bat arituko da idazkari-lanetan.

*11. artikulua.*– Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Diru-laguntzak emateko eta horien zenbatekoak zehazteko, irizpide hauek hartuko ditu kontuan Balorazio Batzordeak, horietako bakoitzari emandako puntuen arabera:

exigencias impuestas por la normativa en materia de seguridad y salud laborales:

– haber realizado la Evaluación de Riesgos Laborales, adoptando una modalidad de organización de la prevención, de conformidad con lo establecido en el artículo 10 del Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención, y elaborado un Plan de Actuación preventivo, en caso de que esto último fuese necesario.

– haber llevado a cabo la Auditoría del Sistema de Prevención establecido para aquellas modalidades organizativas que lo requieran, en virtud de lo dispuesto en el artículo 29 del Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención.

*Artículo 9.*– Subsanación de defectos de la solicitud presentada.

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación administrativa señalada en el artículo 8.1 de esta Resolución, Osalan requerirá la presentación de la documentación omitida o la subsanación del defecto observado, concediendo, a estos efectos, un plazo de diez días hábiles a contar desde el siguiente al de la notificación del requerimiento, con indicación de que si así no lo hiciese se tendrá por desistida la petición, procediéndose de conformidad con lo dispuesto en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 10.*– Gestión de las ayudas y Comisión de Valoración.

1.– Corresponderá a Osalan la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente Resolución.

2.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Valoración en Osalan compuesta por los siguientes miembros:

– Presidenta: Subdirectora de Promoción.

– Vocales:

– Subdirector Operativo
– Responsable de Formación, Documentación y Publicaciones.
– Responsable de Salud Laboral.
– Un/a Técnico adscrito/a a Osalan.
– Secretario/a: Actuará como tal el/la Técnico adscrito/a a Osalan.

*Artículo 11.*– Criterios de adjudicación de las subvenciones.

1.– La Comisión de Valoración tendrá en cuenta para la concesión y cuantificación de las ayudas los siguientes criterios, atendiendo a la puntuación asignada a cada uno de ellos:

a) Jardueraren izaera. Osalanen 2002 urterako Kudeaketa Planean ezarritako jarduteko arlo nagusien helburuekin bat etortzea baloratuko da.

b) Zabalkuntza maila: eragiketa norentzako den, kopuruari eta nolakotasunari begira.

c) Jarduerari iritzitako kalitate-maila duen.

d) Dakartzan elementu berritzaileak.

e) Jarduera edo tresna beste alor edo talde batzuetara egokitzeko edo eramateko aukera.

2.– Aipatutako irizpide horiek banan-banan baloratuko dira, gehienez 5 punturaino.

*12. artikulua.–* Diru-laguntzak ematea.

1.– Eskabideak Balorazio Batzordeak aztertuko ditu, ebazpen honen 11. artikuluan finkatutako irizpideei jarraituz.

2.– Balorazio Batzordeak dagokion ebazpen-proposamena egingo dio Osalaneko zuzendari nagusiari eta honek ebazpen baten bidez ebatziko du diru-laguntzak eman edo ez. Ebazpen hori eta egindako aldaketak interesatuei jakinaraziko zaizkie, eta gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

3.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, 6. artikuluan jarritako epea iragan eta interesatuari ezer jakinarazi ez bazaio, eskabidea ukatu egin zaiola ulertu beharko du.

4.– Baldin eta, diru-laguntza eman zaiola jakinarazteko agiria jaso eta 10 eguneko epean, erakunde onuradunak diru-laguntzari beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badio, laguntza onartu egin duela esan nahiko du.

*13. artikulua.–* Burutzeko epea.

Diru-laguntza jasotzen duten jarduerak aurten egin beharko dira eta, edozelan ere, 2002ko abenduaren 31rako bukatu beharko dira.

*14. artikulua.–* Diru-laguntza ordaintzea.

Esleitutako laguntza jasotzeko, laguntzak esleitzeko ebazpenak ezarritako baldintzetan eta eran gauzatuta egon beharko du diruz lagundu daitekeen jarduerak. Horretarako, ondoren adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dira 2003ko otsailaren 28a baino lehen:

– Burututako jarduerak justifikatzen dituen memoria: aurreikusitako plana gauzatzeari buruzko xehetasunak egiaztatu eta bermatzen dituzten argibide guztiak jaso beharko ditu.

– Onartutako aurrekontuan agertzen diren gastuei dagozkien benetako egiaztagiriak, jatorrizko edo erkatutako fakturak edo Zuzenbidean balioa duen edozein agiri. Halaber, matrikularen, agirien salmentaren eta

a) Naturaleza de la actuación, valorando la coincidencia de sus objetivos con las áreas prioritarias de actuación establecidas en el Plan de Gestión de Osalan para el año 2002.

b) Grado de difusión: Destinatarios de la acción, desde el punto de vista cuantitativo y cualitativo.

c) Grado estimado de calidad de la actuación.

d) Elementos innovadores que aporta.

e) Posibilidad de adaptación o transferencia de la actuación o herramienta a otros sectores o colectivos.

2.– Los antedichos criterios se valorarán individualmente hasta un máximo de 5 puntos.

*Artículo 12.–* Concesión de las ayudas.

1.– Las solicitudes serán estudiadas por la Comisión de Valoración, de acuerdo con los criterios establecidos en el artículo 11 de la presente Resolución.

2.– La Comisión de Valoración elevará la correspondiente propuesta al Director General de Osalan, que adjudicará o denegará la subvención solicitada mediante Resolución. Esta Resolución y sus modificaciones será notificada a las partes interesadas y publicada posteriormente en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– De conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, si una vez transcurrido el plazo señalado en el artículo 6 de esta Resolución no hubiera sido notificada Resolución alguna, la solicitud correspondiente podrá entenderse desestimada.

4.– Siempre que, en el plazo de 10 días desde la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención, la entidad beneficiaria no renuncie expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

*Artículo 13.–* Plazo de ejecución.

Las actuaciones objeto de subvención deberán realizarse a lo largo del actual año en curso y, en cualquier caso, deberán encontrarse finalizadas antes del 31 de diciembre del presente año 2002.

*Artículo 14.–* Pago de la subvención.

El abono de la subvención otorgada, que requiere la realización previa de la acción subvencionable en las condiciones y forma establecidas en la Resolución de concesión, se realizará mediante la presentación antes del 28 de febrero de 2003 de la siguiente documentación:

– Memoria justificativa de las actuaciones llevadas a cabo, que deberá contener cuanta información demuestre y garantice los pormenores de la ejecución del plan previsto.

– Justificantes veraces, facturas originales o compulsadas o cualquier otro documento válido en Derecho, de los correspondientes gastos que figuren en el presupuesto aprobado, así como de los ingresos previstos en

bestelako finantzabideen ondorioz aurreikusitako diru-sarrerei dagozkienak.

Faktura horietan bereizita eta bananduta jarri beharko dira kontzeptu finantzagarriak. Fakturen edo gastu-dokumentuen egunek 2002ko abenduaren 31 baino lehenagokoak izan beharko dute.

– Diru-laguntza jaso duten eragiketei buruz egindako publizitate guztietan Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen laguntza erasota utzi dela egiaztatzen duten agiriak.

– Baldin eta diru-laguntza deialdiaren osteko ekitaldian ordaintzen bada, diru-laguntza esleitu zenetik hiru hilabete iragan badira eta diru-laguntzaren gai den zenbatekoa 3.005,06 eurotik gorakoa baldin bada, zergak eta gizarte segurantzarekiko eginbeharrak egin dituela egiaztatzen duen agiri eguneratu bat aurkeztu beharko da.

*15. artikulua.–* Diru-laguntzaren doiketa eta esleipenaren ezeztapena.

1.– Baldin eta finantzatutako jardueraren balantze ekonomikoa, jarduerari lotutako gastu eta diru-sarrera guztiak kontuan hartuta, eta aurrekontuan finkatutakoa erabat ezberdinak badira, diru-laguntza proportzioan egokitu daiteke, benetan sortutako defizita ordaintzeko.

2.– Honelakorik gertatzen dela ikusiz gero, emandako diru-laguntzak ezeztatu egingo dira, osorik edo zati batean:

a) Diru-laguntzaren zenbatekoa eman den helburuko ez, beste baterako erabiltzen bada.

b) Diru-laguntza eman zaion erakundeak ebazpen honetako baldintzaren bat betetzen ez badu.

c) Diru-laguntzak emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira.

Diru-laguntza ezeztatzeko arrazoiren bat gertatzen denean —aurreko paragrafoan azaldu dira arrazoiak—, erakunde onuradunek itzuli egin beharko dituzte emandako eta jasotako zenbatekoak eta diru-laguntza ordaindu denetik aplikatzekoak diren legezko interesak. Horretarako, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak ezarritako prozedurari jarraituko zaio (dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu zuen eta diru-laguntzen kudeaketan eskuhartzen duten erakunde laguntzaileen eskakizunak, erregimena eta betebeharrak finkatu zituen).

*16. artikulua.–* Pilaketa.

1.– Erakunde onuradunek helburu horretarako beste diru-laguntzaren bat jasotzen badute beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik, Osalani jakinarazi beharko diote.

el proyecto derivados de matrícula, venta de documentación y demás fuentes de financiación.

En tales facturas deberán aparecer diferenciados y desglosados los distintos conceptos financiables. Las fechas del gasto de las facturas o documentos al efecto no podrán exceder del 31 de diciembre de 2002.

– Documentos justificativos de que se ha hecho constar, en cuanta publicidad se efectúe de las acciones subvencionadas, la colaboración de Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

– En caso de que el pago de la subvención se materializara en el ejercicio siguiente a la convocatoria, hubieran transcurrido tres meses desde la fecha de concesión de la ayuda y el importe subvencionable fuera superior a 3.005,06 euros, se deberá adjuntar nueva certificación actualizada de estar al corriente de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

*Artículo 15.–* Ajuste y revocación de la concesión de subvención.

1.– En caso de que el balance económico de la actuación financiada, considerando todos los gastos e ingresos asociados a la misma, hubiera sido sustancialmente diferente al presupuestado, la subvención se podrá ajustar proporcionalmente al déficit real generado.

2.– Las subvenciones concedidas podrán ser revocadas total o parcialmente en caso de que se comprobara la existencia de alguno de los siguientes supuestos:

a) Que el importe de la ayuda haya sido destinado a una finalidad diferente a aquella para la que fue concedida.

b) Que la entidad beneficiaria de la ayuda incumpla alguna de las condiciones establecidas en esta Resolución.

c) Que se incumplan las condiciones que se establezcan en la Resolución de concesión.

Las entidades beneficiarias que hubieran incurrido en alguna de las causas de revocación descritas en el párrafo anterior quedarán obligadas a reintegrar la cuantía concedida y percibida, además de los intereses legales que resulten de aplicación desde el momento del pago de la subvención, siguiendo el procedimiento establecido al efecto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión.

*Artículo 16.–* Concurrencia.

1.– Las entidades beneficiarias estarán obligadas a comunicar a Osalan la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad procedentes de cualesquiera Administraciones o entes tanto públicos como privados.

2.– Emandako diru-laguntzen zenbatekoaren kopuruak, jarduketa horretarako emandako beste diru-laguntza batzuekin edo finantzatutako jarduerengatiko diru-sarrerekin pilatuta, ezingo du gainditu egindako inbertsioaren kostuaren %100.

*17. artikulua.–* Segimendua eta kontrola.

Osalaneko zerbitzu teknikoek behar diren ikuskatze eta kontrol lanak egin ditzakete, ebazpen honetan ezarritakoa betetzen dela bermatzeko. Halaber, egindako jarduerak egiazta ditzakete. Bestalde, erakunde onuradunak behartuta daude Osalanek, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dieten informazioa ematera.

2.– En ningún caso el importe de las ayudas y subvenciones concedidas podrá ser de una cuantía tal que, en concurrencia con otras subvenciones para la misma actuación o con los ingresos obtenidos en la propia acción financiada, sobrepase el 100% del coste total de la actuación realizada.

*Artículo 17.–* Seguimiento y control.

Los servicios técnicos de Osalan podrán realizar las actuaciones de inspección y control necesarias para garantizar el cumplimiento de lo establecido en la presente Resolución, así como la comprobación de las acciones realizadas. Las entidades beneficiarias quedarán obligadas a facilitar aquella información que les sea requerida desde Osalan, la Oficina de Control Económico o el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

**Zk-3157**

EBAZPENA, 2002ko maiatzaren 8koa, Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, organo beraren 2000ko uztailaren 31ko Ebazpena egokitzeko dena, 2002an aplikatu ahal izateko. Aipatu ebazpenaren bitartez, laneko segurtasuna kudeatzeko enpresa-sistemak ezartzeko diru-laguntzak arautu ziren.

Irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuak Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartu zuen, eta IX. tituluan ezarritakoari jarraituz, abenduaren 26ko 275/2000 Dekretua eman zen. Azken dekretu horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako laguntza eta diru-laguntzak arautzen dituzten zenbait xedapenen indarraldia luzatzea. Eta horretarako, Jaurlaritzak, sailek eta erakunde autonomoek beharrezko diren epeak, baldintzak eta betebeharrak molda ditzakete, xedapenok2002ko ekitaldian aplikatu ahal izateko.

2000ko ekitaldian, Osalaneko zuzendari nagusiaren 2000ko uztailaren 31ko Ebazpena eman zen, laneko segurtasuna kudeatzeko enpresa-sistemak ezartzeko diru-laguntzak arautzeko (2000ko abuztuaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 167 zk.; hutsen zuzenketa: 2000ko urriaren 11ko EHAA, 196 zk.). Beraz, ebazpen hori 2002 ekitaldian aplikatu ahal izateko, epeak eta baldintzak egokitu egin behar dira.

**N°-3157**

RESOLUCIÓN de 8 de mayo de 2002, del Director General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, por la que se adapta, para su aplicación durante el ejercicio 2002, la Resolución de 31 de julio de 2000, del mismo órgano, por la que se regula la concesión de subvenciones para la implantación de sistemas empresariales de gestión de riesgos laborales.

Al amparo de lo establecido en el Título IX del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, se dictó el Decreto 367/2001, de 26 de diciembre, sobre ampliación de la vigencia de determinadas disposiciones reguladoras de ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pudiendo, a tal fin, el Gobierno y los distintos Departamentos y Organismos Autónomos adaptar los plazos, condiciones y requisitos necesarios para su aplicación durante el ejercicio 2002.

En el ejercicio 2000 se dictó la Resolución de 31 de julio de 2000, del Director General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, por la que se reguló la concesión de subvenciones para la implantación de sistemas empresariales de gestión de riesgos laborales, publicada en el BOPV n.º 167, de 31 de agosto de 2000, corrección de errores en el BOPV n.º 196, de 11 de octubre de 2000, por lo que procede la adaptación de los plazos y condiciones necesarios para la aplicación de la referida Resolución durante el ejercicio 2002.